

FUNTSEZKO BALIABIDEA

Baliabideak funtsezkoak dira enpresa bat sortzeko orduan, eta guk hainbat baliabide behar ditugu. Hiru baliabide mota ditugu: baliabide fisikoak, finantziakoak eta intelektualak.

Baliabide fisikoak direla eta, gure produktuak egiteko instalazioak dugu. Lan egiteko erabiliko dugun eremua, lokala izango da. Bestalde ordenagailuak, materiala eta inprimagailuak ere kokatuko ditugu baliabide fisikotan. Zumarragako industria aldean kokatuko dugu gure lokala, hala, behar dugun materiala inguruko negozio edo fabriketatik erosiko ditugu, garraioa aurreztuz.

Bestalde, finantza baliabideak daude, eta bertako diru zati handi bat gure aurrezkietatik datoz. Enpresaren hainbat gauzetan Samsung enpresak lagunduko digu, iragarkietan esaterako, eta azkenik, gobernuaren diru laguntza jasoko dugu. Finantza baliabide hau 3000-6000€ ingurukoa da.

Azkenik, baliabide intelektualak ditugu. Baliabide hauek denborarekin garatzen joango dira. Gure produktuak ez ditu eragile-eskubideak edukiko gu Samsung enpresaren atzean ezkututzen garelako. Gure proiektuaren izena "mandu jakintsua" izango da.